



DEBABARRENA
Eskualdeko Mankomunitatea
Mancomunidad Comarcal



KORONABIRUS (COVID - 19)

TRANTSIZIO PROTOKOLOA

**Protokolo irekia da eta osasun bilakaeraren eta osasun publikoko agintaritzek xedatutako zuzentarauen arabera aldatuko da. 2020/05/14.*



1. SARRERA

Gobernuak deskonfinamenduaren faseak zehaztu ondoren, beharrezkotzat jo da alarma egoeratik ateratzeko trantsizio protokolo bat ezartzea.

2. JARDUKETA PROTOKOLOA

COVID-19-aren aurrean ezarritako jarduketa protokoloa kontuan hartuta, hainbat alderdi malgutu egin behar dira, betiere oinarritzko neurriak errespetatuta:

- Bi metroko distantzia fisikoa mantentzea.
- Pertsonen arteko hurbiltasun fisikoa dakarten egoeretan maskarak erabiltzea.
- Higiene pertsonaleko eta espazio komunitateko garbiketa neurriak mantentzea.

SARBIDE KONTROLA

❑ Sintomarik eza (eztulik ez, arnasketa arazorik ez, sukarrik ez) eta lehen graduko aurretiko kontakturik eza egiaztatzea. Instalaziora sartu aurreko tenperatura kontrola (37°C-tik beherakoa izan behar du). Sintomak izatekotan, lanera ez etortzea, erakundeari egoera jakinaraztea eta etxean isolatuta geratzea bi astetan zehar edo erabat sendatuta egon arte.

❑ Kanpoko langileen sarbide kontrola. Kanpoko langileei barneko langileei aplikatzen zaizkien kontrol berak burutuko zaizkie sartzeko eta jarduera mantentzeko ezinbestekoak diren sarbideak baimenduko dira bakarrik. Enpresaren barruan, kanpoko langileak, euren presentzia behar duten eremuen barruan mugitu ahalko dira bakarrik. Kanpoko langileei protokolo honetan aurreikusitako higie eta babes neurri berak aplikatuko zaizkie.

HIGIENE PERTSONALA

❑ Eztul edo doministiku egitean, ongi estali ahoa eta sudurra ukondoarekin edo erabili eta botatzeko musuzapi batekin, arnasketa sekrezioak gelditzeko helburuarekin.

❑ Erabili eta botatzeko musuzapiak erabili eta, ondoren, bota berehala helburu horretarako gaitutako edukiontzi batera.

❑ Garbitu eskuak maiz garbitu ur eta xaboiarekin (edo gomendatutako soluzio batekin), birusaren transmisioa edo birusarekin kontaktua ekiditeko, eta beti eztul, doministiku eta zintz egin ondoren. Eskuak ageriko moduan garbi badaude, eskuen higiea alkohol oinarritutako produktuekin burutuko da.



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea
Mancomunidad Comarcal



- 7 DESINFEKZIOA. Eskuak zikin badaude edo fluidoren batekin zikindu badira, ur eta xaboi antiseptikoarekin garbituko dira.
- 7 GARBIKETA. Alkohol oinarritun produkturik ez badago, eskuak garbitu beharko dira kasu guztietan.
- 7 Ez ukitu begiak, sudurra eta ahora, eskuek birusaren transmisioa ahalbidetzen baitute.
- 7 Saiatu kontaktu fisikoa ekiditen.

INSTALAZIOEN GARBIKETA ETA DESINFEKZIO PROZEDURA

- 7 Aldizkako desinfekzioak burutzen jarraituko da aldagela guztietan.
- 7 Hori gorabehera, garbiketa enpresak, "Limpiezas Abando", eremu komunak desinfektatzen jarraituko du (ateetako heldulekuak, etengailuak, etab.) helburu horretarako desinfektatzaile espezifiko batekin.
- 7 Ibilgailu guztien kabinetan alkohola eta paper-zapi bustiak egongo dira, kabina garbitzeko.
- 7 Ibilgailuen kabinak ozonoarekin desinfektatuko dira egunean behin. Ibilgailu guztiek, erabili aurretik, ozonizazio eta ionizazio prozesua igaroko dute.

7 HELBURU HORRETARAKO EZARRITAKO PROTOKOLOA HONAKOA DA:

IBILGAILU KABINEN OZONIZAZIOA.

Erabiliko den makina:- Ozono makina



Gailua erabilerraza da, elektrizitate sarera konektatu behar da eta tenporizadorea jarri. Honela, 10 minuturen buruan, kabinak ozonizatuta geratuko dira.

- 7 Lan hau burutzeko ardura duten langileak
 - .- Lantegiko burua
 - .- Biltegiko laguntzailea



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea
Mancomunidad Comarcal



- Lantegiko langilea (jardunaldiaren arabera definitu beharrekoa)

Langileek makinaren erabilerari buruzko jarraibideak jaso dituzte.

Jarduketa protokoloa

- ✓ Goizeko lehen orduan, lantegiko buruak ezarriko ditu ibilgailuen ozonizazioaren inguruko lehentasunak. Egunerako aurreikusitako lanen arabera goizean zehar erabiliko diren ibilgailuak ozonizatuko dira lehenik, hartara lan horiek burutzeko ardura duten langileak martxan jarrita.
- ✓ Kabinak ozonizatzeko batez besteko denbora 10 minutukoa da ibilgailu bakoitzeko (ez da zenbatzen ibilgailuak makina dagoen tokira eramateko beharrezko denbora). Prozesu horretan zehar, ibilgailuaren atea itxita mantendu behar dira eta inor ez da kabinara sartuko. Prozesua amaituta, leihoak irekita utziko dira aireztatzeko.
- ✓ Ibilgailu horiek ozonizatu ondoren, gauean zehar erabiliko diren ibilgailu guztiekin prozesu bera burutuko da.
- ✓ Ozonizatu diren ibilgailuen kontrolerako txosten bat burutuko da egunero eta Mankomunitateko Prebentzio Teknikariari helaraziko zaio, (jarduneko) lantegiko buruaren sinadurarekin eta ozonizazio lana burutu duen pertsonaren sinadurarekin.
- ✓ **SEGURTASUN ARAUAK:** erabat debekatuta dago ozono igorgailuaren funtzionamendua, pertsona eta/edo izaki bizidunen aurrean. Ozono makina ez da inolaz ere ipiniko likido edo gel hidroalkoholikoa edo bestelako gas edo likido sukoiak dituzten edukiontzietatik hurbil.

COVID-19-AREN AURREAN BEREZIKI ZAURGARRIAK DIREN LANGILEAK

 Osasun Ministerioaren protokoloa jarraituko da: *“Laneko arriskuen prebentzio zerbitzuei zuzendutako jarduketa prozedura koronabirusarekiko (sars-cov-2) esposizioaren aurrean”*. Horren arabera, beren ezaugarri pertsonalak direla eta COVID-19-aren aurrean zaugarri izan daitezkeen langile guztiek Quirón Prevención erakundearen osasun departamentura joko dute azterketarako eta, horren ondoren, jasotako ebaluazioa aurkeztuko dute. Quirón erakundeak ondorioztatuko balu langilea ez dela bereziki zaugarria, langilea bere lanpostura itzuliko da; bestela, langileak bere familia medikuarengana joan beharko du txosten horrekin baja eskatzera.



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea
Mancomunidad Comarcal



ANTOLAKETA NEURRIAK:

Zuzendaritzatik egokitzen jo da koronabirusari aurre egiteko hartutako antolaketa neurriak mantentzea.

1- BULEGOETAKO LANGILEAK

Kontuan hartuta apirilaren 24ko Presidentziaren ebazpenean adostu zela bide garbiketako zerbitzuetara, garbiguneetara eta bulegoetara atxikitako langileak 2020ko apirilaren 27an lanpostura itzultzea, urrutiko lanean ari direnak salbu, eta Gobernuak planteatutako deskonfinamenduaren faseak aztertuta, langileentzako lanera itzulera arautu bat antolatzea komeni da. Beraz, maiatzaren 18tik aurrera itzuliko dira urrutiko lanean ari diren langileak. Ingurumen Teknikariaren kasuan, bi aurrez aurreko jardunaldi eta hiru urrutiko jardunaldi burutzen dituenek, urrutiko lanean jarrai dezan baimentzen da, aurrez aurreko jardunaldiak areagotuta, astean bat gehiago egiteko, maiatzaren 18tik aurrera. Aurrez aurreko jardunaldiek pixkanaka areagotzen jarraituko dute, itzulera erabatekoa izan arte, Presidenteak erabakitzen duen erritmoaren arabera.

Halaber, pasa den martxoaren 13an bertan behera utzi zen jendaurreko arreta zerbitzua berriz ere irekiko da edukieraren kontrolarekin eta higiene neurri zorrotzekin, eskualdeko udalak irekitzen diren data berean.

Jendaurreko arretarako protokoloa honakoa izango da:

- Atean adieraziko da gehienezko edukiera pertsona bakarrekoa dela. Hau da, herritarrak kanpoan itxaron beharko du arreta jasotzeko atea irekitzen zaion arte.
- Sartzeko maskara ipini beharko da eta sarreran gel hidroalkoholikoa egongo da eskuak garbitzeko.
- Mankomunitateko langileek metakrilatozko pantailak eramango dituzte prebentzio neurri gisa eta arreta mostradorearekiko distantzia errespetatzeko zinta bat ipiniko da.
- Kanpoko pertsonak erabiltzen dituzten boligrafoak eta gel hidroalkoholikoaren edukiontzia harrera lekuko arduradunak desinfektatutako ditu alkoholarekin.

Bulegoetako langileei dagokienez, langileen arteko kontaktua ahal den neurrian saihestuko da. Gutxienezko distantzia 2 metrokoa izango da.

Ahal den neurrian, departamentu arteko kontsultak telefonoz burutuko dira.

Bilerak saihestu egingo dira, erabat beharrezkoa bada salbu eta, ezinbesteko kasu horietan, langileek maskarak erabili beharko dituzte.

Langile guztiek alkohola izango dute eskura beren mahaiak, teklatuak, telefonoak eta gainerako lan tresnak desinfektatzeko.

Halaber, gel hidroalkoholikoa ere eskura izango dute eskuak garbitzeko.

Lanpostura itzultzean eremua aireztatu (bulegoa edo antzekoa) gutxienez ere 10 minututan zehar. Lanpostura itzuli aurretik, eskuak garbitu (eraztunik, eskumuturrekorik, erlojurik eta antzekorik gabe) agintaritzaren eskudunak emandako gomendioaren arabera. Teklatua, sagua, telefonoaren aurikularra eta antzekoak desinfektatu erabili eta botatzeko materialekin (ez baietekin).

Lan jardunaldian zehar eta jardunaldia amaitu ondoren, garbitu eskuak ur eta xaboiarekin.



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea
Mancomunidad Comarcal



2- BIDE GARBIKETAKO LANGILEAK

Langileen arteko kontaktua saihestuko da ahal den neurrian. Gutxieneko distantzia 2 metrokoa izango da.

Langile guztiei banakako gel hidroalkoholiko pote bat eta bi paper-zapi heze desinfektatzaile emango zaizkie.

Lanera sartzea txandaka burutuko da, aldageletan, aldi berean, 3-4 pertsona baino gehiago ez egoteko. Segurtasun distantzia mantendu beharko da, beraz, aldagela txikia bada, edukiera hori txikiagoa izango da ere.

Kale garbigailuaren gidaria bakarrik joango da eta, beraz, peoiak ezingo du kale garbigailuan joan.

Gidari guztiek alkohola izango dute eskura bolantea, abiadura kaxa eta aurreko panela garbitzeko.

Maiatzaren 11tik aurrera, haizagailua erabiltzen hasiko da.

3- HIRI HONDAKINEN BILKETA ZERBITZUKO LANGILEAK

Langileen arteko kontaktua saihestuko da ahal den neurrian. Gutxieneko distantzia 2 metrokoa izango da.

Lanera sartzea txandaka burutuko da, aldageletan, aldi berean, 3 pertsona baino gehiago ez egoteko. Segurtasun distantzia mantendu beharko da. Pertsonen arteko 2 metroko distantzia bermatu behar da eremu komunetan eta, edonola ere, langileen metaketa saihestu behar da eremu hauetan. Edukiera kontrolatu egingo da 2 metroko segurtasun distantzia mantendu ahal izateko.

Gidari guztiek alkohola izango dute eskura bolantea, abiadura kaxa eta aurreko panela garbitzeko.

Kamioiaren kabinan, gehienez ere, bi langile joango dira eta maskara jarrita eraman beharko dute.

Langile guztiek maskarak, betaurrekoak eta erabili eta botatzeko eskularruak izango dituzte.

Txanda desberdinen hasiera mantenduko da.

4- LANTEGIA:

Langileen arteko kontaktua saihestuko da ahal den neurrian. Gutxieneko distantzia 2 metrokoa izango da. Lan arrazoia direla eta segurtasun distantzia mantendu ezingo balitz, langileek maskara erabili beharko dute.

Lanera sartzea txandaka burutuko da, aldageletan, aldi berean, 3-4 pertsona baino gehiago ez egoteko. Segurtasun distantzia mantendu beharko da (koordinatu eguneko hiri hondakinen bilketa zerbitzuarekin). Segurtasun distantzia mantendu beharko da.

Mekanikari/peoi mekanikari guztiek alkohola eskura izango dute langile batek baino gehiagok erabiliko dituzten tresnak garbitzeko. Tresna horiek desinfektatu beharko dira beste pertsona batek erabili aurretik.

Lantegiko langileek ura eta xaboia izango dituzte eskura.

Lantegiko langile guztiek erabili eta botatzeko eskularruak, maskara eta betaurrekoak jaso dituzte.

5- GARBIGUNE ZERBITZUKO LANGILEAK

Garbigune guztiak zabalik daude apirilaren 27az geroztik. Jarduketa protokolo hau ezarri da garbiguneetara sartzen diren langile guztientzat:




DEBABARRENA
Eskualdeko Mankomunitatea
Mancomunidad Comarcal



GARBIGUNEKO ERABILTZAILEAREN ERANTZUKIZUNA ETA BETEBEHARRAK

- DERRIGORREZKOA DA ADIERAZITAKO SEGURTASUN DISTANTZIA MANTENTZEA



- DERRIGORREZKOA DA EZARRITAKO TXANDAK ETA GARBIGUNEKO LANGILEEK EMANDAKO JARRAIBIDEAK ERRESPETATZEA
- GEHIENEZ ERE 4 ERABILTZAILE.

Garbiguneako arduradunak kontrolatuko du momentu oro edukiera, segurtasun distantziak mantentzen direla bermatzeko eta jendea pilatzea ekiditeko.

ARAU HAUEK ZURE SEGURTASUNAREN ONERAKO DIRA. LAGUNDU IEZAGUZU. ESKERRIK ASKO.

Garbiguneetako langileek eskura izango dituzte erabili eta botatzeko eskularruak, maskarak eta betaurrekoak. Herritarrek ez dute sarrerako erregistrorik sinatuko.

Langileek alkohola eta papera izango dituzte eskura beren mahaiak, teklatuak, telefonoak eta gainerako lan tresnak desinfektatzeko.

Halaber, gel hidroalkoholikoa ere eskura izango dute eskuak garbitzeko.

6- HERRITARREKIKO NEURRIAK

Edukiontzi grisa eta marroia irekita mantenduko dira.

Tamaina handiko hondakinen bilketa zerbitzua berriz ere jarriko da abian 2020ko maiatzaren 18tik aurrera, astelehena.

Hipoklorito sodiko bidezko desinfekzioa burutuko da udalerrri guztietan. Erabiliko den kantitatea enpresa hornitzaileak gomendutakoa izango da, erabilera etxean egiten denaren parekoa izan dadin.

Mankomunitateko jendaurreko arreta zerbitzua bertan behera utzi da eta kontsultak telefono bidez burutu beharko dira.

Eibarren, 2020ko maiatzaren 14an.



PRESIDENTEA
Iosu Arraiz Aranburu





DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea
Mancomunidad Comarcal



1. Eranskina

SND/422/2020 Agindua, maiatzaren 19koa, COVID-19k eragindako osasun-krisialdian maskara nahitaez erabiltzeko baldintzak arautzen dituena.

1. artikulua. Xedea.

Agindu honen xedea da herritarrek nahitaez maskara erabiltzea arautzea.

Agindu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, aurreko paragrafoan aipatutako betebeharra betetzat joko da sudurra eta ahoa estaltzen dituen edozein maskara erabiliz, ahal dela higienikoa eta kirurgikoa. Nolanahi ere, osasun-agintariek erabilerari buruz emandako jarraibideak bete beharko dira.

2. artikulua. Behartutako subjektuak.

1. Sei urtetik gorako pertsonak maskarak erabili beharko dituzte 3. artikuluan adierazitako guneetan.

2. Aurreko lerrokadan jasotako betebeharra ez da eskatuko honako kasu hauetan:

A) maskara erabiltzeagatik arnasa hartzeko zailtasunen bat duten pertsonak.

B) Behar bezala justifikatutako osasun-arrazoiengatik maskararen erabilera kontraindikaturik duten pertsonak, edo desgaitasun- edo mendekotasun-egoeragatik maskararen erabilera bideraezina egiten duten jokabide-aldaketak dituztenak.

C) Jardueren izaeragatik, maskara erabiltzea bateraezina denean.

D) Ezinbesteko kausa edo beharrian-egoera.

3. artikulua. Maskara erabiltzea nahitaezkoa den guneak.

Nahitaez erabili beharko da maskara bide publikoan, aire zabaleko espazioetan eta erabilera publikoko edo jendearentzat irekita dagoen edozein espazio itxitan, baldin eta ezinezkoa bada pertsonen arteko segurtasun-tartea gutxienez bi metrokoa izatea.

Azken xedapenetako lehenengoa. Errekurtsoen araubidea.

Agindu honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 12. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Azken xedapenetatik bigarrena. Ondorioak eta indarraldia.

Agindu honek erabateko ondorioak izango ditu Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eta indarrean jarraituko du alarma-egoerak eta haren luzapenek irauten duten bitartean.



DEBABARRENA
Eskualdeko Mankomunitatea
Mancomunidad Comarcal



ERREGISTROA

Langileak, jaunak/andreak, NAN
zenbakiduna, honakoa adierazten du:

- Koronabirusak (COVID-19) sortutako alarma egoeratik ateratzeko trantsizio protokoloa jaso eta irakurri dut.

Halaber, erantzukizunaren zati bat onartzen dut eta protokoloaren ezarpenarekin konpromisoa hartzen dut, koronabirusaren aurkako borroka guztion erantzukizuna baita.

Sinadura:

Data: